
VISESAK (VIVIENDA Y SUELO DE EUSKADI, S. A.- EUSKADIKO ETXEBIZITZA ETA LURRA EA) ZARAUTZ UDALERRIKO ALDAPETA EREMUAN (ALDAPETA KALEA 1-3) ETXEBIZITZARI ATXIKI GABEKO 7 GARAJE-PLAZA ENKANTE SISTEMAREN BIDEZ JABETZA OSOAN ESLEITZEKO BALDINTZEN PLEGUA

LEHENENGOA.- XEDEA

Plegu honen xedea da notario aurrean arautzea ZARAUTZ UDALERRIKO ALDAPETA kalea 1-3 HELBIDEAN SUSTATZEN ARI DIREN ETXEBIZITZARI ATXIKI GABEKO 7 GARAJE-PLAZA ESLEITZEKO "VIVIENDA Y SUELO DE EUSKADI, S.A.- EUSKADIKO ETXEBIZITZA ETA LURRA EA" sozietate publikoak deitu duen enkantea arautzeko baldintzak. Baldintzok deialdi horren I. eta III. eranskinetan zehatzen dira.

BIGARRENA.- LIZITAZIOAREN PREZIO TIPOA

Lizitazioaren prezio-tipoa I. eranskinean adierazitakoa da enkantean jarritako 7 garaje-plaza bakoitzerako, eta lizitaziotik kanpo geratuko dira, automatikoki, prezioa murrizten duten proposamenak.

HIRUGARRENA.- GAITASUNA

Pertsona fisikoek baino ezin dituzte eskaintzak aurkeztu.

Lizitatzailerak beren izenean eta eskubidean parte hartu ahal izango dute, edo horretarako emandako notario-ahalordea duen beste pertsona batek ordezkatuta.

LAUGARRENA.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO LEKUA, MODUA ETA EPEA

LEKUA: Proposamenak eskura aurkeztu beharko dira notarioaren bulegoan:

- **Zarautz:** Angel María Moreno Gallego jaunaren notariotza (Foruen Kalea 2, 1.a, Zarautz)
- Orduetgia: Astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara.

EPEA: astelehenetik ostiralera, **2021eko maiatzaren 17tik 2021eko maiatzaren 28ko 18:00ak arte.**

MODUA: Bi gutun-azal itxitan, bakoitza honako titulu honekin: "ZARAUZKO ALDAPETA KALEKO 1-3 ZENBAKIAN (G-070) GARAJE PLAZA BAT ESLEITZEKO ENKANTEAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA". "

"A" gutun-azalean, honako azpititulu hau jarriko da: "GAITASUNA". Honako hauek aurkeztuko dira:

- Lizitatzaileraren edo haren ordezkariaren Nortasun Agiri Nazionalaren kopia.
- Ahalorde-eskritura publikoaren fotokopia, ordezkariak jardunez gero.

"B" gutun-azalean, honako azpititulu hau jarriko da: "PROPOSAMENA". Honako hauek aurkeztuko dira:

- I. eranskinean adierazitako fidantza-bermea kontuan sartu dela egiaztatzen duen agiria. II. eranskinean zehaztutako ereduaren araberrako proposamena, esleipendun izan ezean fidantza-bermea zein erakunde eta kontu-zenbakitan itzuli behar den adierazita.

BOSGARRENA.- FIDANTZA (BERMEA)

Enkantean parte hartzeko, lizitatzailerak edozein kontu korrontetan sartuta egon beharko dute "VIVIENDA Y SUELO DE EUSKADI, S.A.-EUSKADIKO ETXEBIZITZA ETA LURRA EA (VISES)"ren izenean **II.** eranskinean adierazitako zenbatekoa, hau da, **100 €/ garaje**. Zenbateko hori eskaintzen den elementuaren lizitazio-prezio tipoen fidantza

edo bermea da, BEZik gabe, eta eskaintako prezio osoaren ordainketa bermatuko du. Automatikoki baztertuko dira ordainketa egin izanaren frogagiririk aurkezten ez duten eskaintzak.

- Kutxabank ES05 2095 0611 00 9112501872
- Caja Laboral-Euskadiko Kutxa ES93 3035 0012 79 0120062038

Kontzeptua: Garajearen Fidantza G070

SEIGARRENA.- GUTUN-AZAL ITXIAK IR4EKITZEA ETA ESLEITZEA

2021eko maiatzaren 31n, modu pribatuan irekiko dira gutun-azal itxiak notarioaren aurrean. Egintza horretan, aurkeztutako dokumentazioa egiaztatuko da, eta gutun-azal itxiak aurkeztu dituzten pertsonen nortasunari eta elementurako eskaintako prezioari buruzko notario-akta egingo da, inolako esleipenik egin gabe.

Ondoren, VISESAren egoitza sozialean eskaintza guztien notario-lekukotza jaso ondoren, baldintza-plegu honen l. eranskinean adierazitako garaje-plazen behin-behineko esleipena egin eta jakinarazi egingo da.

Parte hartzeko eskatzen den fidantza gehienez ere 60 egun balioduneko epean itzuliko da, jakinarazpena egiten denetik aurrera zenbatzen hasita, lizitatzailleak adierazitako moduan; lizitatzaille esleipendunari dagokion fidantza, ordea, ez da itzuliko eta atxiki egingo da salerosketa-kontratua eskritura publikoan formalizatu arte.

ZAZPIGARRENA.- ESLEITZEKO ARAUAK

Esleipena honako arau hauen arabera egingo da:

- A) Baztertu egingo dira prezio-tipoa betetzen ez duten proposamenak, ereduarekin bat ez datozenak edo fidantza ordaindu izanaren egiaztagiria eta plegu honetan eskatutako dokumentazioa ez dutenak.
- B) VISESAk behin-behinean esleitu dio garaje-plaza bakoitza lizitazioaren prezio-tipoa gainditzeko duen preziorik altuena eskaintzen duen hautagaiari.
- C) Baldintza ekonomikoetan berdinketarik gertatuz gero, VISESAk egoitza sozialean egingo duen zozketaren bidez ebaztuko da behin betiko.
- D) Ez da onartzen errematea hirugarrenei lagatzea.
- E) Nahiz eta garaje-plaza bakoitzeko eskaintza aurkeztu ahal izango den, plaza bakoitzerako aurkeztutako eskaintza merkeena bada ere, **plaza horietako bat baino ezingo da erosi, eta ezingo da garaje-plaza baten baino gehiagoren titularra edo titularkidea izan.**
- F) **Pertsona edo familia-unitate bakoitzeko (senar-emazteak edo izatezko bikoteak) eskaintza bakarra aurkeztu ahal da garaje-plaza bakoitzerako.** Ondasunen banantze edo irabazpidezko ondasunen araubidean ezkonduetako pertsonen eta izatezko bikoteen bi ezkontideen datuak adierazi beharko dituzte eskabidean(*).
- G) Proposamen ekonomikoan adierazi diren pertsonak (II. ERANSKINA) izango dira garaje-plazaren titularrak.
- H) Aurkeztutako eskaintza ekonomikoa BEZik gabekoa izango da. BEZaren zerga (% 21) garajearen salerosketa ordaintzeko unean ordainduko da. Sustapenean etxebizitza babestua eskuratzen dutenen kasuan, garajearen eskritura etxebizitzaren erosketa-eskriturarekin batera formalizatzen bada, % 10 aplikatuko da.
- I) Pertsona fisikoek baino ez dute izango parte hartzeko aukera.

ZORTZIGARRENA.- ESKRITURA FORMALIZATZEA ETA PREZIOA ORDAINZEA

VISESAk pertsona edo familia-unitate interesdunari esleipenaren berri emango dio posta ziurtatuaren bidez, hartu-agiriarekin edo posta elektroniko ziurtatuarekin, eta salerosketako kontratu pribatua formalizatzeko eguna eta ordua adieraziko dizkio. Une horretan, 3.000 € gehi BEZa ordaindu beharko dira, aurrerakin edo seinale gisa.

Esleipen hori eskritura publiko egingo da 3 hilabeteko epean, Gipuzkoako Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzak salerosketa-kontratua ikus-onesten duenetik aurrera zenbatzen hasita.

Salerosketako eskritura publikoa sinatzean, garaje-plazaren lizitazioaren gainerako prezioa gehi dagokion BEZa ordainduko da.

Fidantza (bermea) lizitazio-preziotik kenduko da salerosketa-kontratua formalizatzean.

Garaje-plazaren salerosketak eragindako gastu guztiak (zergak, erregistro-gastuak, etab.) erosle esleipendunaren kontura izango dira. Gainbalioa saltzaileak, VISESAk, ordainduko du.

VISESAk aurkeztutako dokumentazioan agertzen den pertsona edo familia-unitate (*)esleipendunaren alde baino ez ditu egingo salerosketa-kontratua eta salerosketako eskritura publikoa.

BEDERATZIGARRENA.- SALMENTAREN BALDINTZAK

Etxebizitza babestuari atxikita EZ dauden, eta gaur egun eraikitzen ari diren eta EB3-0291/16-LT-000 etxebizitza babestuaren espedientean jasota dauden garaje-plazak (Zarauzko 1-3 zenbakiko Aldapeta kaleko **4, 41-43-44-45-46 eta 47 zenbakiekin identifikatuak**) enkante-sistemaren bidez salmentan esleitzeko, jabetza osoko ukaitza-arabidean, eskaintza aurkeztearekin soilik erreserbarik gabe onartu behar dira Plegu honetako klausula guztiak, eta, bereziki, dagokion salmenta-kontratuan ere jasoko diren hauek:

- A)** Garaje-plazaren deskribapena, obra berriaren eskrituraren eta 2021eko martxoaren 31n Zarauzko Ángel Maria Moreno Gallego notario andreak formalizatutako eraikuntzaren banaketa horizontalaren arabera.

OBRA BERRIKO HIRU ZENBAKIKO ELEMENTUA.- *Garajea, berrogeita bat (41) zenbakia duena, lehenengo erdisotoan kokatua. Hogeita hamalau metro eta laurogeita bost dezimetro koadroko azalera erabilgarria du, errodatze-kalean duen partaidetza barne.*

Muga egiten du: iparraldean, errodatze-eremua; hegoaldean, hormak; ekialdean, berrogei zenbakiko garajea; eta mendebaldean, hormak. -----

Eraikineko elementu komunetan beste ehuneko baten ehuneko zero osoko eta berrogeita hamar ehuneko partaidetza-kuota esleitzen zaio (% 0,50).

OBRA BERRIKO LAU ZENBAKIKO ELEMENTUA.- *Garajea, berrogeita hiru (43) zenbakia duena, lehenengo erdisotoan kokatua. Hogeita hamabi metro eta laurogeita hemezortzi dezimetro koadroko azalera erabilgarria du, errodatze-kalean duen partaidetza barne.*

Muga egiten du: iparraldean, berrogeita lau zenbakiko garajea; hegoaldean, hormak; ekialdean, errodatze-eremua; eta mendebaldean, hormak. -----

Eraikineko elementu komunetan beste ehuneko baten ehuneko zero osoko eta berrogeita zazpi ehuneko partaidetza-kuota esleitzen zaio (% 0,47).

OBRA BERRIKO BOST ZENBAKIKO ELEMENTUA.- *Garajea, berrogeita lau (44) zenbakia duena, lehenengo erdisotoan kokatuta. Hogeita hamaika metro eta hirurogeita hamabost dezimetro koadroko azalera erabilgarria du, errodatze-kalean duen partaidetza barne.*

Muga egiten du: iparraldean, berrogeita bost zenbakiko garajea; hegoaldean, berrogeita hiru zenbakiko garajea;

ekialdean, errodatze-eremua; eta mendebaldean, hormak.

Eraikineko elementu komunetan beste ehuneko baten ehuneko zero osoko eta berrogeita bost ehuneneko partaidetza-kuota esleitzen zaio (% 0,45).

OBRA BERRIKO SEI ZENBAKIKO ELEMENTUA.- *Garajea, berrogeita bost (45) zenbakia duena, lehenengo erdisotoan kokatuta. Hogeita bederatzi metro koadroko azalera erabilgarria du, errodatze-kalean duen partaidetza barne.*

Muga egiten du: iparraldean, berrogeita sei zenbakiko garajea; hegoaldean, berrogeita lau zenbakiko garajea; ekialdean, errodatze-eremua; eta mendebaldean, hormak.

Eraikineko elementu komunetan beste ehuneko baten ehuneko zero osoko eta berrogeita bi ehuneneko partaidetza-kuota esleitzen zaio (% 0,42).

OBRA BERRIKO ZAZPI ZENBAKIKO ELEMENTUA.- *Garajea, berrogeita sei (46) zenbakia duena, lehenengo erdisotoan kokatuta. Hogeita bederatzi metro koadroko azalera erabilgarria du, errodatze-kalean duen partaidetza barne.*

Muga egiten du: iparraldean, berrogeita zazpi zenbakiko garajea; hegoaldean, berrogeita bost zenbakiko garajea; ekialdean, errodatze-eremua; eta mendebaldean, hormak.

Eraikineko elementu komunetan beste ehuneko baten ehuneko zero osoko eta berrogeita bi ehuneneko partaidetza-kuota esleitzen zaio (% 0,42).

OBRA BERRIKO ZORTZI ZENBAKIKO ELEMENTUA.- *Garajea, berrogeita zazpi (47) zenbakia duena, lehenengo erdisotoan kokatuta. Hogeita bederatzi metro koadroko azalera erabilgarria du, errodatze-kalean duen partaidetza barne.*

Muga egiten du: iparraldean, berrogeita zortzi zenbakiko garajea; hegoaldean, berrogeita sei zenbakiko garajea; ekialdean, errodatze-eremua; eta mendebaldean, hormak.

Eraikineko elementu komunetan beste ehuneko baten ehuneko zero osoko eta berrogeita bi ehuneneko partaidetza-kuota esleitzen zaio (% 0,42).

OBRA BERRIKO BEDERATZI ZENBAKIKO ELEMENTUA.- *Garajea, lau (4) zenbakia duena, bigarren erdisotoan kokatuta.. Hogeita bost metro eta laurogeita bi dezimetro koadroko azalera erabilgarria du, errodatze-kalean duen partaidetza barne.*

Muga egiten du: iparraldean, errodatze-eremua; hegoaldean, horma; ekialdean, bat zenbakiko garajea; eta mendebaldean, bost zenbakiko garajea. -----

Eraikineko elementu komunetan beste ehuneko baten ehuneko zero osoko eta hogeita hamazazpi ehuneneko partaidetza-kuota esleitzen zaio (% 0,37).

HAMARGARRENA.- DATUEN BABESA

EUSKADIKO ETXEBIZITZA ETA LURRA EAn, tratatzen ditugun datu pertsonalez eta datu pertsonalen babesaren arloan indarrean dagoen araudia zehatz-mehatz betetzeaz arduratzen gara, besteak beste, 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena.

Horiekin bat etorriz, EUSKADIKO ETXEBIZITZA ETA LURRA EAn egiten ditugun datu pertsonalen tratamenduei buruzko honako gai hauen berri ematen da:

Nor da zure datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna?

Nortasuna: EUSKADIKO ETXEBIZITZA ETA LURRA EA

IFZ: A20306775

Posta-helbidea: Gamarrako Atea kalea 1A , 2. solairua – PK 01013 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Telefono-zenbakia: 945 21 40 38

Posta elektronikoa: visesa@visesa.eus

Datuak babesteko ordezkariaren harremanetarako datuak

Posta-helbidea: Gamarrako Atea kalea 1A, 2. solairua – PK 01013 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Telefono-zenbakia: 945 21 40 38

Posta elektronikoa: lopd-visesa@visesa.eus

Tratamenduaren helburua: eraikitzen ari diren 7 garaje-plazetako bat (Zarauzko Aldapeta kalea, G-070) esleitzeko enkantean duzun partaidetza kudeatzeko erabiliko dira datu pertsonalak, eta esleipenduna izanez gero, haren salerosketa kudeatzeko.

Tratamenduaren legitimazioa: datu pertsonalen tratamendurako oinarri legala edo juridikoa enkantean parte hartzeari dagokion kontratu aurreko neurriak betearaztea da; baina, esleipenduna izanez gero, salerosketa-kontratua betearaztea izango da legitimazioa.

Datuen hartzaileak: enkantean parte hartzen duten pertsonen datu pertsonalak ez zaizkie hirugarrenei jakinaraziko, Gipuzkoako Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzari izan ezik, baldin eta ikus-onespenerako salerosketa-kontratua formalizatzen bada.

Datuen kontserbazio-epea: enkantearen epean gordeko ditugu datuak, eta, enkantea egin ondoren, erantzukizunak preskribatzeko epeetan; horrela, epeak igaro ondoren, datuak ezabatu egingo dira.

Interesdunen eskubideak: zure datu pertsonalak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, tratamendua mugatzeko, aurka egiteko edo eramangarritasuna eska dezakezu. Horretarako, idatzizko eskaera bat bidali beharko duzu helbide honetara: EUSKADIKO ETXEBIZITZA ETA LURRA EA, Gamarrako Atea kalea 1a , 2. solairua – PK 01013 Vitoria-Gasteiz (Araba); edo mezu elektroniko bat bidali lopd-visesa@visesa.eus helbidera, betiere zure NANaren fotokopia aurkeztuta.

Uste baduzu ez ditugula zuren datu pertsonalak behar bezala tratatu edo ez ditugula behar bezala artatu datuak babesteko dituzun eskubideak, erreklamazioa aurkez dezakezu Datuak Babesteko Espainiako Agentzian, egoitza elektronikoaren bidez edo bere helbidean (Jorge Juan kalea 6, PK 28001, Madril). **HAMAIKAGARRENA.- EPAIMAHIAK**

Esleipendunak edo esleipendunek berariaz uko egiten diote beren bizilekuko foruari, eta sor daitezkeen gorabehera eta erreklamazio guztiak ebazteko eskumena duten Donostiako epaitegi eta auzitegien mende jartzen dira. -----

I. ERANSKINA

ENKANTEKO ELEMENTUAK

KOKAPENA	ZARAUTZ ALDAPETA KALEA 1-3 ZK.
ESKURATZEA:	Jabetza osoa
OBRA BERRIAREN ESKRITURA:	Eraikitzen ari diren obra berriaren eskritura, Zarauzko Angel María Moreno Gallego notario jaunak sinatua: 2021eko martxoaren 31ekoa, 387. protokoloa.
BPE ESPEDIENTE ZK.	EB3-0291/16-LT-000
EMATEKO DATA gutxi gorabehera:	2021eko IRAILA
SALMENTA-SISTEMA:	ENKANTEA

HELBIDEA – GARAJE ZKIA. (1)		m2 erabilgarriak gutxi gorabehera (*)	LIZITAZIOAREN PREZIOA, ZERGARIK GABE (BEZa)	BERMEA (Fidantza)
Aldapeta kalea 1-3, <u>4. garajea</u>	2. sotoa solairua	25,82	32.098,91 €	100 €
Aldapeta kalea 1-3, <u>41. garajea</u>	1. sotoa solairua	34,85	39.184,99 €	100 €
Aldapeta kalea 1-3, <u>43. garajea</u>	1. sotoa solairua	32,90	36.992,43 €	100 €
Aldapeta kalea 1-3, <u>44. garajea</u>	1. sotoa solairua	31,75	35.699,38 €	100 €
Aldapeta kalea 1-3, <u>45. garajea</u>	1. sotoa solairua	29,00	32.607,31 €	100 €
Aldapeta kalea 1-3, <u>46. garajea</u>	1. sotoa solairua	29,00	32.607,31 €	100 €
Aldapeta kalea 1-3, <u>47. garajea</u>	1. sotoa solairua	29,00	32.607,31 €	100 €

(*) Sarbideen eta errodatze-kalean duen zati proportzionala barne. Azalera dagokion obraren amaiera-aktaren eskrituran jasotako azken azalerari egokituko zaio.

Oharra:

- Informazio grafikoa: www.visesa.euskadi.eus
- Eskainitako zenbatekoa % 21eko BEZarekin handituko da. Sustapenean etxebizitza babestua eskuratzen dutenen kasuan, garajearen eskritura etxebizitzaren erosketa-eskriturarekin batera formalizatzen bada, % 10 aplikatuko da.

II. ERANSKINA

VISESAK ZARAUTZEN DUEN ETXEBIZITZARI ATXIKI GABEKO GARAJE-PLAZAREN ENKANTERAKO PROPOSAMEN EKONOMIKOA

ESKATZAILEA(K)			
Izena – Abizena 1(*)			
NAN – AIZ - PASAPORTEA		Nazionalitatea	
Lanbidea		Egoera zibila	
Izena – Abizena 2			
NAN – AIZ - PASAPORTEA		Nazionalitatea	
Lanbidea		Egoera zibila	

(*) Ezkontuen edo izatezko bikoteen kasuan, nahitaez adierazi beharko dituzte bi ezkontideen datuak.

ORDEZKARIA			
Izena eta abizenak			
NAN – AIZ - PASAPORTEA		Nazionalitatea	

(**) erantsitako botere-eskrituran justifikatzen denaren arabera.

HARREMANETARAKO DATUAK	
Helbidea	
Udalerrria – PK	
Telefono mugikorra	
Posta elektronikoa	

VISESAk GIPUZKOAKo Lurralde Historikoan, ZARAUTZen, duen eta behean adierazten garaie-plaza enkantearen bidez esleitzeko oinarri diren Baldintzen Pleguaren berri izan ondoren, Plegu horretan eta horren eranskinetan ezarritako estipulazio guztiak onartuta, eta dagokion fidantza ordainduta, agiri bidez justifikatzen den moduan, BEHEAN ADIERAZITAKO GARAIE-PLAZA erosteko konpromisoa hartzen du:

HELBIDEA	GARAIE ZK. (1)	Eskaintako prezioa, zergarik gabe	BERMEA (Fidantza)
ALDAPETA 1-3 (Zarautz)			

Prezio hori dagokion BEZarekin handituko da esleipenduna izanez gero. Esleipenduna izan ezean, fidantza hemen itzuliko da:


Kutxa edo Bankua	Kontua (20 digitu) IBAN

.....(e)an, 2021eko -ren (e)(a)n.

Sin.:	Sin.:
NAN zk.	NAN zk.

III. ERANSKINA.- GARAJEEN PLANOAK ETA BANAKETA – ALDAPETA 1-3, ZARAUTZ

2. sotoko solairua – Kanpotik garajeetara sartzeko solairua



1. sotoko solairua - *Goiko solairua*

